

DONOSTIA HIRIKO HIRI-ERRONKAK EBAZTEKO IDEIEN LEHIAKETA ARAUTZEKO OINARRIAK

1. ATARIKOA

Donostia Sustapena, S.A. sozietateak (aurrerantzean, DS), Donostiako Udaleko ekonomia-garapen eta berrikuntzarako agentzia modura, hiriko ekonomia eta enplegua bultzatuko duten proiektu berritzaileen garapena sustatzeko helburua du, eredu kolaboratibo bat baliatuz, hiriko eragile publiko eta pribatu ezberdinekin eta ezberdinen arteko adostasun eta lankidetzatik abiatuta.

2023-2027 Gobernuako Programaren esparruan, Donostia Zientziaren eta Ezagutzaren Hiri modura bultzatzeko apustua egiten da, berrikuntza eta ikerketa aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzeko ardatz eragile modura, unibertsitate eta goi mailako zentroekin etengabeko lankidetzan arituz eta hirian teknologia aurreratuko enpresa berriak txertatuz.

Donostiako hiriak etengabeko desafio eta erronkak ditu aurrez aurre, eta udal eremutik erantzun arin eta malgua eman nahi zaie horiei. Eskari berrien eta egungo gizartearen aldaketa jarraituen ondorioz, ezinbestekoa da tresna berritzaile egokiak izatea, erronka horiei irtenbide eraginkor eta efizienteak eman ahal izateko. Modu berean, gero eta beharrezkoagoa da irtenbideak diziplina anitzeko ikuspegi batetik jorratzea, hala esparru publikotik, nola bere inguruneari dagokionez. Haatik, hori gauzatu ahal izateko, eredu berritzaile kolaboratiboak ere behar dira.

Tokiko berrikuntza-ekosistema osatzen duten erakundeak hiriko erronketarako irtenbide berritzaileak diseinatzeko eragile gako gisa kokatzen dira. Hala ere, zenbaitetan, irtenbide horiek baliozkotu egin behar izaten dira egiazko baldintzetan testatuz, enpresa-ekimen berrien bidez jarraikortasuna izango duten produktu edo zerbitzu komertzial bilakatu aurretik.

Testuinguru horretan, hiriaren erronken aurrean erantzun berritzaileak emateko aldaketarako palanka modura berrikuntzaren aldeko apustu argi batekin, DS sozietateak lankidetzara publiko eta pribatuen prozesuen garapena bultzatzen du, tokiko balio-kateko eragileak elkarren artean lankidetzan aritzeko proiektu iraunkorrak abiarazi eta kudeatuz.

2. HELBURUA ETA XEDEA

Oinarri hauen helburu nagusia, tokiko berrikuntza-ekosistema osatzen duten erakundeetatik datozen ideia berritzaileak, hiri-erronkei erantzutekoak eta udal eremuaren lankidetzarekin Donostia hirian testatzea eskatzen dutenak, identifikatzeko irekitako lehiaketa arautzea da.

3. PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK

Ideien Lehiaketa hau tokiko berrikuntza-ekosistema osatzen duten erakundeei dago zuzendua. Zehazkiago, honako erakunde hauek aurkeztu ahal izango dira:

- ZTBESko erakunde kideak.
- ETEak.
- Startup-ak.

Lehiaketan parte hartzeko erakundeek berariazko baldintza hauek bete behar dituzte:

- Pertsona juridiko publiko edo pribatua izatea, ordenamendu juridikoaren arabera modu baliozkoan eratua.
- ZTBESko erakundea izanez gero, Ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren bidez arautua egotea, eta ZTBESko Agenteen Erregistro Publikoan erregistratuta egotea.
- ETE-en kasuan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 13. artikulua horretarako egiten duen araudiaren arabera baldintzak betetzea:
 - I. Esplotazio ekonomikoa egitea.
 - II. Bere aktiboak edo eragiketa bolumenak, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean definitzen den bezala, ez gainditzea HAMAR (10) milioi euroak.
 - III. Batez besteko langile-kopurua ez iristea 50 langilera.
 - IV. Aurreko beharkizunetako bat betetzen ez duten enpresek ez dute 100eko 25eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa izango, salbu eta Foru Arau horretako IV Kapituluaren ezarritako erregimen berezia aplikagarri zaien arrisku kapitaleko sozietate edo fondoak direnean.
- Entitatea sozietate-talde bateko kidea denean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluen arabera, plantillaren magnitudeak talde horretako entitateen multzoari egingo dio erreferentzia.
- Startup-ak badira, ideia aurkezteko unean baliozko eran eratuta egotea.
- Lantokia Donostian izatea, eta bertan garatzea proposatutako jarduerak.
- Aurkezten duen ideiak alderdi berritzaile bat izatea eta Donostia hiriko hiri-erronkak ebaztea, eragin positiboaz.
- Erakunde parte-hartzaileak zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak zein DS sozietatearekikoak eta Donostiako Udalarekikoak egunean izatea.

4. IDEIEN LEHIAKETAREN XEDE DIREN HIRI-ERRONKEN EZAUGARRIAK

Aurkeztutako ideiek **hiri-erronkak iraunkortasunaren, gizarte-inklusioren, oparotasun ekonomikoaren eta aurrerapen teknologikoaren** ikuspegitik **ebazteko** irtenbide berritzaileak proposatu beharko dituzte. Adibide modura, irtenbideekin, besteak beste, azpiegitura eta zerbitzu publikoen iraunkortasuna hobetzeko, neutraltasun klimatikoa eta energia-trantsizioa sustatzeko, hiriaren berroneratzea bultzatzeko, zerbitzu publikoen eraldaketa digitalari laguntzeko, erresilientzia klimatikoa hobetzeko edota tokiko garapen sozioekonomikoa sustatzeko irtenbideak proposatu ahal izango dituzte.

Irtenbide berritzaileek honako **betekizun** hauek bete beharko dituzte:

- Hiriaren eta hiritarren **egiazko erronkei** eta premiei **erantzutea**
- Merkatuarekiko balio **berritzaile eta bereizgarria** izatea, produktu/zerbitzu berriekin
- **Teknologia, ezagutza edota berrikuntzako** erabilera intentsiboa egitea
- Donostiako udal barrutian **esperimentatu** ahal izatea
- **Epe laburrera egingarriak**: Testatuz gero, 12-18 hilabeteko iraupena irtenbidea garatu, txertatu, monitorizatu eta ebaluatzen den bitartean
- **Inpaktu handia** sorraraztea: Inpaktu esanguratsuak, denboran iraungo dutenak eta egiazko proba-eszenariotan txertatu artean egiaztagarriak
- **Eskalagarriak eta iraunkorrak** izatea
- Ideia garatzeko **profil kualifikatuak** eta esperientziadunak gaineratzea

Horrela, proposamenek hiri erreferente modura kokatzen lagunduko dute hiri barneko berrikuntza eta laborategiaren ikuspegitik.

5. PROPOSAMENEN AURKEZPENA

Idea Lehiaketan parte hartzen duten erakundeek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1) Dagokion **Eskaera Inprimakia (I. Eranskina)** bete beharko dute

- Erakundearen Datuak
- Ideiaren Memoria

Aurkeztutako ideietan, irtenbideak hirian testatze bat egitea eskatuz gero, balizko pilotua hedatzeko **testeoaren proposamen zehatza** zehaztu beharko da. Hori hiri osoari dagokion espazioa edo lan-eremua izan daiteke, edo espazio tipologia jakin bat behar izan daiteke, forma edota funtzioari dagozkion arrazoiak direla medio. Edozein kasutan, Ebaluazio Batzordeak proposatutako testatze proposamen eta espazioaren alternatiba bat proposatzeko eskubidea gordetzen du.

2) Bestalde, erakunde parte-hartzaileak oinarri hauetako betekizunak, eredu normalizatuarekin (**II. Eranskina**) bat etorritik, betetzen dituela aitortzeko **Erantzukizunpeko adierazpena** aurkeztu beharko du.

Parte hartzeko proposamena aurkeztu duen pertsona juridikoak egindako erantzukizunpeko adierazpen guztien nahiz aurkeztutako gainerako dokumentazioaren egiazkotasunaren gaineko erantzukizun osoa hartzen du beregain.

Proposamenak aurkezteko epea Ideien Lehiaketaren oinarriak DS sozietatearen webgunean argitaratu eta 2024ko abenduaren 31ean, gaueko 23:59tan amaituko da.

Idea Lehiaketari buruzko informazioa eta eskaera egiteko inprimaki normalizatuak Donostia Sustapenaren webgunean egongo dira eskuragarri, eta eskaerak telematikoki aurkeztu beharko dira webgune horren bidez (<https://www.fomentosansebastian.eus/>).

6. EBALUAZIO BATZORDEA

Aurkeztutako eskaerak Ebaluazio Batzorde batek balioetsiko ditu. Honako hau izango da ebaluazio-prozedura:

1) Onarpena: Behin eskaera eta harekin lotutako dokumentazioa aurkeztuta, lehiaketaren oinarri arautzaileetan zehaztutako betekizunekin bat datozela egiaztatuko da. Eskatzaileak Ideien Lehiaketako oinarrietan adierazitako dokumentuak helarazi ez baditu, aurkezteko esango zaio.

2) Ideiaren balioespena: Behin eskaera onartuta, proposatutako ideia aztertu eta balioetsiko da, oinarri hauetan ezarritako balioespen-irizpideen arabera.

3) Informazio gehigarria eta erkaketa-bilkura: Beharrezkoa izanez gero, Ebaluazio Batzordeak informazio gehigarria eskatu ahal izango du, eta aldi berean, ideia aurkeztu duen erakundearekin jar daiteke harremanetan zalantzak argitu edota erkaketa egiteko.

5) Ebazpena eta jakinarazpena: Azken emaitza erakundeari jakinaraziko zaio.

Ebaluazio Batzordeak egokitzen jotzen badu, erakundearekin azken bilkura bat egin ahal izango du, **idea** udal eremuan **testatzeko aukera** aztertze aldera. Baterako azterketa horrek ideia **hirian** egiaz

esperimentatzeko **Lankidetza Hitzarmena** ekar dezake. Kasu horretan, Hitzarmenean lankidetzaren irismena eta konpromisoak zehaztuko lirateke.

7. BALIOESPEN-IRIZPIDEAK

Aurkeztutako ideiak **sarrera-erregistroko hurrenkeraren arabera** ebaluatu eta ebatziko dira.

Honako oinarri hauen arabera aurkeztutako ideia guztiak **100 puntuko gehienezko puntuazio** baten arabera ebaluatuko dira, proiektuaren alderdi ezberdinak (berrikuntza, bideragarritasuna eta hiri barneko inpaktua) barne hartzen dituzten balioespen-irizpide hauekin bat etorritik:

BALIOESPEN-IRIZPIDEAK	Gehienezko puntuazioa
1. Berrikuntza eta Kalitate Teknikoa Proposatutako irtenbidearen berrikuntza maila eta bereizgarritasun-balioa, proposatutako teknologiaren heldutasuna zein hiriko egiazko erronken aurrean erantzun berritzaile bat eskaintzeko gaitasuna balioetsiko dira	30
2. Bideragarritasun Tekniko eta Ekonomikoa Proiektuaren merkatu-bideragarritasuna eta egingarritasun tekniko eta ekonomikoa ebaluatzen dira, beharrezkoak diren baliabideak (finantzarioak, giza baliabideak eta teknikoak) eta erakunde parte-hartzaileak emandakoak kontuan hartuta. Era berean, proiektuak epe labur-ertainean hirian testatua eta garatua izateko duen gaitasuna baloratzen da, baita eskalagarritasuna, erreplikagarritasuna, beste irtenbide batzuekiko elkarrengarritasuna, estandar irekien erabilera eta ingurune errealean inplementatu ondoren behar den mantentze-lana ere	30
3. Iraunkortasuna eta inpaktua (ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa) hirian Proiektuak hirian duen eragin positiboa baloratzen da. Tokiko ekonomian duen eragina (baliabide publikoak eraginkortasunez erabiltzea, enpresa-aukerak sortzea eta abar), enplegua sortzea, eta horrek ingurumen-iraunkortasunari egiten dion ekarpena (kutsadura murriztea, energia-eraginkortasuna, etab.)	30
4. Lantaldea eta Lankidetzak Talde arduradunaren esperientzia eta gaitasunak balioesten dira, bai eta hiri-ekosistemarekin eta udal-eremuarekin lankidetzan aritzeko eta sinergiak sortzeko duen inplikazio- eta gaitasun-maila ere	10
PUNTUAZIOA GUZTIRA	100

Proposamenek modu orekatuan erakutsi beharko dituzte alderdi zientifikoak, teknikoak, ekonomikoa eta inpaktuzkoak, egiazko ingurune batean txertatuak izateko eta hirirako zein hiritarrentzat onura adierazgarriak ekartzeko gaitasunarekin batera. Aurkeztutako ideiek **gutxienez** eskatzen den **puntuazioa, 70 puntukoa**, gainditu beharko dute.

DS sozietateak gutxieneko puntuazio hori gainditzeko ez duten ideiak aurkeztu arren, gutxienez 50 puntu lortu dituzten erakunde eskatzaileekin jarri ahal izango da harremanetan, jardueraren ulermen egokia erkatu eta, egokitutako joz gero, dokumentazioa berriro aurkeztu dezaten.

8. ERANTZUKIZUNETIK SALBUESTEA

DS salbuetsita geratzen da, erantzule izan gabe, parte-hartzaileek jabetza intelektualeko, industrialeko edo irudikoen eskubideak betetzeari dagokienez, zein parte-hartzaileek oinarri hauek ez betetzetik edo akatsekin betetzetik erator daitekeen edozein erantzukizunen gainean, edo parte-hartzaileek betetzen ez duten legezko edozein betekizun edo betebeharren gainean. Halaber, DS salbuetsita geratzen da parte-hartzaileekiko edozein konpentsazio edo betebeharren gainean, Ideien Lehiaketa hau legez bertan behera utzi edo ezeztatu beharko balitz.

9. JABETZA INTELEKTUALA

Parte-hartzaileek bermatzen dute aurkeztutako lanak jatorrizkoak direla eta, ez dutela, inolaz ere, hirugarren eskubiderik urratzen, ezta jabetza intelektualeko edo industrialik ere, eta horrenbestez, legitimazio osoa dutela lehiaketa honetan parte hartzeko, bertako oinarriekin bat etorritik. Horrenbestez, erakunde parte-hartzaileek beregain hartuko dute, DS aurrean, zentzu horretan egon daitekeen edozein erreklamazioaren gaineko erantzukizuna. Parte-hartzaileek aurkeztutako lanen zein proiektuaren egiletzaren eta originaltasunaren jabetza intelektual mantenduko dute. Hautatutako erakundearen, DS eta Udal Sail partaideen artean, gerora, Lankidetzaren Hitzarmen bat sinatuko balitz, Hitzarmen horretan aldeek adostutako jabetza intelektualarekin lotutako alderdi zehatz espezifikoak arautuko dira.

10. OINARRI ARAUTZAILEEN ONARPENA

Ideien Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar oinarri hauetako edukia osorik onartzea. DS sozietateak Lehiaketa hau bertan behera utzi edo ezeztatzeko eskubidea gordetzen du, edota bertako baldintzaren bat aldatzekoa, arrazoi teknikoak edo edozein modukoak direla medio, komenigarria izango balitz. Aldaketa guztiak webgunean argitaratuko dira: (<https://www.fomentosansebastian.eus/>).

11. DATU PERTSONALEN BABESA

Datuak babesteko indarreko araudian ezartzen denaren arabera, helarazitako datu pertsonalak Donostiako Udalak tratatuko dituela jakinarazten da, Tratamenduaren arduradun modura jardungo duena, informazioa Donostia Sustapena S.A. sozietateak kudeatuko duelarik, tratamenduaren arduradun izaeran. Tratamenduaren helburua aurkeztutako ideia izapidetu eta kudeatzea da.

Tratamenduaren zilegitasuna DBEO erregelamenduko 6.1.e) artikuluan oinarritzen da: tratamendua ezinbestekoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahal publikoak gauzatzean burututako misioa betetze aldera: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarri buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Lege orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

Oinarri hauetan edo eskaera egiteko dagozkion inprimakietan hala adierazten denean, datu pertsonalei buruzko informazioa entregatzea derrigorrezkoa izango da eta horiek ez emateak edo datu okerrak emateak eskaera kudeatu ahal izatea ekidingo du.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak gorde egingo dira jaso ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator litezkeen balizko erantzukizunak erabakitzeko eta datuak tratatu ahal izateko behar den denboraz. Artxibo eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa izango da aplikatzekoa.

Eragindako pertsonen datuak hartu, zuzendu eta ezabatzeko eskubideak erabil ditzakete, eta baita datuak babesteko indarreko araudian jasotzen diren bestelako eskubideak ere, hala dagokionean, Donostiako Udaleko Udalinfo Zerbitzuaren aurrean (Easo kalea 41, 20006, Donostia).

Eskubideak erabiltzean behar bezala artatua izan ez bada, erreklamazio bat ipini ahalko da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aurrean. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua (01008, Gasteiz). Haatik, aldez aurretik eta hautaz, Donostiako Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango da: dbo@donostia.eus.

12. PUBLIZITATEA ETA HEDAPENA

DS sozietateak aurkeztutako proiektuari buruzko informazioa argitaratu ahal izango du bere web-orrialdean zein ekimen hori ezagutarazteko egokitzat jotzen dituen bestelako bitartekoetan.

Donostian, 2024ko abenduaren 13an.

Iñigo Olaizola Arcaute

ZUZENDARI KUDEATZAILEA - DONOSTIA SUSTAPENA